



IBR GAITZAREN OSASUN PROGRAMA

ANIMALIEN MUGIMENDUETARAKO BALDINTZAK

Beste edozein osasun programetan bezala, animalien mugimenduak dira gaixotasun ezberdinak ustialeku batetik bestera kutsatzearen arrazoi nagusia. Hori dela eta animalien mugimendu guztiak IBR programak ezarritakoaren arabera egin behar dira.

Edozein mugimendu egin ahal izateko, urtero egin behar den IBR gaitzaren jarraipenak indarrean egon beharko du.

Ustialeku bakoitzaren kalifikazioak zein mugimendu eta zer baldintzetan egin ditzaken baldintzatzen du:

- **IBR4:**
 - Animalien sarrerak:
 - IBR4 kalifikazioa duen ustialekutik badator:
 - Garraioan ezin du IBR4 kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliekin bidaiatu.
 - Derrigorrez ez jatorrian ez norakoan ez da frogarik egin beharrik.
 - **Gomendioak:**
 - Jatorriko ustialekuan azken 15 egunetan analisiak egin eta gB- emaitza edukitzea.
 - Ustialekura sartzean animalia 21 egunez isolatuta eduki ondoren frogak egin eta gB- emaitza edukitzea
 - IBR4 kalifikazioa ez duen ustialeku batetik badator (**Gomendioa: sarrerak IBR4 kalifikazioa duten ustialekutatik bakarrik egitea**):
 - Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- emaitza eman behar du (**Gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - Ustialekuan berriz analisiak errepikatu arte animalia 21 egunez isolatuta eduki behar da.
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - 21 egun ondoren frogak egin arte ezin izango da animalia ustialekutik atera, gizendegi, hiltegi edo IBR0 kalifikazioa duen ustialekura izan ezik.
 - Tratulari baten ustialekutik badator:
 - Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - Ustialekuan berriz analisiak errepikatu arte animalia 21 egunez isolatuta eduki behar da
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - 21 egun ondoren frogak egin arte ezin izango da animalia ustialekutik atera, gizendegi, hiltegi edo IBR0 kalifikazioa duen ustialekura izan ezik.



- Animalien irteerak:
 - Edozein kalifikazio duten ustialekutara eraman daitezke
 - Atera aurretik, ez da IBR frogarik egin beharrik, [baina erosleak analisiak egitea eska dezake.](#)

- Joan-etorriko mugimenduak:
 - Larre komunal, azoka edo erakusketetara joateko:
 - IBR4 kalifikazioa duten ustialekuetako animaliak bakarrik egongo badira:
 - Ez da ez joatean ezta etortzean ere inolako ekintzarik egin beharrik.
 - IBR4 kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliak ere egongo badira:
 - Ustialekura itzuli eta 21 egunetara analisiak egin behar zaizkie
 - Analisiak egin bitartean animalia horiek isolatuta eduki behar dira
 - Analisiak egin arte ezingo dira ustialekutik atera, hiltegi, gizendegi edo IBRO kalifikazioa duen ustialeku batera izan ezik.
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du ([gomendioa: emaitza gB- izatea](#)).
 - Ganadu txapelketa batera joateko:
 - IBR4 kalifikazioa duten ustialekuetako animaliak bakarrik egongo badira:
 - Ez da ez joatean ezta etortzean ere inolako ekintzarik egin beharrik.
 - IBR4 kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliak ere egongo badira:
 - Ustialekura itzuli eta 21 egunetara analisiak egin behar zaizkie
 - Analisiak egin bitartean animalia horiek isolatuta eduki behar dira
 - Analisiak egin arte ezingo dira ustialekutik atera, hiltegi, gizendegi edo IBRO kalifikazioa duen ustialeku batera izan ezik.
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du ([gomendioa: emaitza gB- izatea](#)).
 - Txapelketa bakoitzaren antolatzaileak bertan parte hartzeko baldintza gehigarriak eska ditzake:
 - Ustialeku parte hartzaileek gutxieneko IBR kalifikazioaren bat edukitzea.
 - Azken 15 egunetan egindako analisietan gB- edo gE- emaitza eduki behar izatea.
 - [Besteren bat](#)
 - Idi probak eta soka-muturrak:
 - Ez daukate IBR gaitzaren aurka txertatuta egon beharrik
 - Ekitaldian ez dute kalifikazio okerragoa duen animaliekin inolako harremanik eduki behar



- **IBR3-T:**

- Animalien sarrerak:

- IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa duen ustialekutik badator (**Gomendioa: sarrerak IBR4 kalifikazioa duten ustialekutatik bakarrik egitea**):

- Garraioan ezin du IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliekin bidaiatu.
 - Derrigorrez ez jatorrian ez norakoan ez da frogarik egin beharrik.
 - **Gomendioak:**
 - Jatorriko ustialekuan azken 15 egunetan analisiak egin eta gB- emaitza edukitzea.
 - Ustialekura sartzean animalia 21 egunez isolatuta eduki ondoren frogak egin eta gB- emaitza edukitzea

- IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa ez duen ustialeku batetik badator (**Gomendioa: sarrerak IBR4 kalifikazioa duten ustialekutatik bakarrik egitea**):

- Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - Ustialekuan berriz analisiak errepikatu arte animalia 21 egunez isolatuta eduki behar da.
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - 21 egun ondoren frogak egin arte ezin izango da animalia ustialekutik atera, gizendegi, hiltegi edo IBR0 kalifikazioa duen ustialekura izan ezik.

- Tratulari baten ustialekutik badator:

- Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - Ustialekuan berriz analisiak errepikatu arte animalia 21 egunez isolatuta eduki behar da
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - 21 egun ondoren frogak egin arte ezin izango da animalia ustialekutik atera, gizendegi, hiltegi edo IBR0 kalifikazioa duen ustialekura izan ezik.

- Animalien irteerak:

- IBR4 kalifikazioa duen ustialeku batera badoaz:

- Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- emaitza eman behar du (**erosleak gB- izatea eska dezake**).

-

- IBR3-T, IBR3, IBR2, IBR1-, IBR1 edo IBR0 kalifikazioa duen ustialekura badoaz:

- Atera aurretik, ez da IBR frogarik egin beharrik, **baina erosleak analisiak egitea eska dezake**.

- Joan-etorriko mugimenduak:

- Larre komunal, azoka edo erakusketetara joateko:



- IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa duten ustialekuetako animaliak bakarrik egongo badira:
 - Ez da ez joatean ezta etortzean ere inolako ekintzarik egin beharrik.
- IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliak ere egongo badira:
 - Ustialekura itzuli eta 21 egunetara analisiak egin behar zaizkie
 - Analisiak egin bitartean animalia horiek isolatuta eduki behar dira
 - Analisiak egin arte ezingo dira ustialekutik atera, hiltegi, gizendegi edo IBRO kalifikazioa duen ustialeku batera izan ezik.
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du (gomendioa: emaitza gB- izatea).
- Ganadu txapelketa batera joateko:
 - IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa duten ustialekuetako animaliak bakarrik egongo badira:
 - Ez da ez joatean ezta etortzean ere inolako ekintzarik egin beharrik.
 - IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliak ere egongo badira:
 - Ustialekura itzuli eta 21 egunetara analisiak egin behar zaizkie
 - Analisiak egin bitartean animalia horiek isolatuta eduki behar dira
 - Analisiak egin arte ezingo dira ustialekutik atera, hiltegi, gizendegi edo IBRO kalifikazioa duen ustialeku batera izan ezik.
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du (gomendioa: emaitza gB- izatea).
 - Txapelketa bakoitzaren antolatzaileak bertan parte hartzeko baldintza gehigarriak eska ditzake:
 - Ustialeku parte hartzaileek gutxieneko IBR kalifikazioaren bat edukitzea.
 - Azken 15 egunetan egindako analisietan gB- edo gE- emaitza eduki behar izatea.
 - Besteren bat
- Idi probak eta soka-muturrak:
 - Ez daukate IBR gaitzaren aurka txertatuta egon beharrik
 - Ekitaldian ez dute kalifikazio okerragoa duen animaliekin inolako harremanik eduki behar



- **IBR3:**

- Animalien sarrerak:

- IBR4 edo IBR3-T kalifikazioa duen ustialekutik badator (**Gomendioa: sarrerak IBR4 kalifikazioa duten ustialekutatik bakarrik egitea**):
 - Ez dago jatorrian IBR frogarik egin beharrik
 - Sarreran IBR gaitzaren aurka txertatu behar da
 - Garraioan ezin dute IBR3, IBR3-T edo IBR4 kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliekin batera bidaiatu.
- IBR3 kalifikazioa duen ustialekutik badator (**Gomendioa: sarrerak IBR4 kalifikazioa duten ustialekutatik bakarrik egitea**):
 - Ez dago jatorrian IBR frogarik egin beharrik
 - Jatorrian IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar du. Txertatu gabe badago, sarreran txertatu beharko da.
 - Garraioan ezin dute IBR3, IBR3-T edo IBR4 kalifikazioa ez duten ustialekuetako animaliekin batera bidaiatu.
 - **Gomendioak:**
 - Jatorriko ustialekuan azken 15 egunetan analisiak egin eta gE- edo gB- emaitza ematea.
 - Ustialekura sartzean animalia 21 egunez isolatuta eduki ondoren frogak egin eta gE- edo gB- emaitza ematea.
- IBR0, IBR1, IBR1- edo IBR2 kalifikazioa duen ustialekutik badator:
 - Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- edo gB- emaitza eman behar du.
 - Txertatu gabe dauden animaliak sarreran txertatu behar dira.
 - **Gomendioak:**
 - Sarrerak IBR4 kalifikazioa duten ustialekutatik bakarrik egitea
 - Animaliak jatorrian txertatuta ekartzea
 - Ustialekura sartzean, animalia 21 egunez isolatuta eduki ondoren, frogak egin eta gE- edo gB- emaitza ematea.
- **Tratulari baten ustialekutik badator:**
 - Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - Ustialekuan berriz analisiak errepikatu arte animalia 21 egunez isolatuta eduki behar da
 - Isolamenduaren ondorengo analisiak gE- emaitza eman behar du (**gomendioa: emaitza gB- izatea**).
 - 21 egun ondoren frogak egin arte ezin izango da animalia ustialekutik atera, gizendegi, hiltegi edo IBR0 kalifikazioa duen ustialekura izan ezik.
 - Txertatu gabe dauden animaliak sarreran txertatu behar dira.

- Animalien irteerak:

- IBR4 edo IBR3-T kalifikazio duten ustialekutara badoaz:
 - Azken 15 egunetan egindako analisiak gE- edo gB- emaitza eman behar du (gB- izatea gomendatzen da).



- Garraioan ezin dute IBR3 baino kalifikazio baxuagoa duten ustialekuetako animaliekin batera bidaiatu.
- Animaliak IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar du.
- IBR0, IBR1, IBR1-, IBR2 edo IBR3 kalifikazioa duten ustialekuetara:
 - 3 hilabetetik gorako animaliek IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar dute.
 - Garraioan ezin dute norako ustialekuak duen kalifikazioa baino kalifikazio baxuagoa duten ustialekuetako animaliekin batera bidaiatu.
 - **Derrigorrezkoa ez izan arren, erosleak azken 15 egunetan IBR frogak egitea eska dezake.**
- Tratulari edo kontzentrazioa gunen batera:
 - 3 hilabete baino gehiagoko animaliek txertatuta egon behar dute, gazteagoek ez.
 - **Ez da beharrezkoa IBR frogarik egitea.**
- Gizendegi eta hiltegirako irteerak:
 - Ez dute IBR inguruan inolako baldintzarik bete behar.
- Joan-etorriko mugimenduak:
 - Larre komunal, azoka edo erakusketetara joateko:
 - IBR gaitzaren aurkako txertaketa protokoloa beteta eduki behar dute.
 - Kalifikazio baxuagoa duten ustialekuetako animaliekin egon badira, jatorrira itzuli eta 21 egunetara analisiak egin behar zaizkie.
 - Analisisak egin bitartean animaliak isolatuta eduki behar dira
 - Analisisak egin arte ezingo dira ustialekutik atera hiltegi, gizendegi edo IBR0 kalifikazioa duen ustialeku batera izan ezik.
 - Analisisak gB- edo gE- emaitza eman behar du.
 - Ganadu txapelketa batera joateko:
 - IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar dute.
 - IBR4, IBR3-T edo IBR3 kalifikazioa duten ustialekuetako animaliak bakarrik egongo badira:
 - Ez da ez joatean ezta etortzean ere inolako ekintzarik egin beharrik.
 - IBR0, IBR1, IBR1- edo IBR2 kalifikazioa duten ustialekuetako animaliak ere egongo badira:
 - Ustialekura itzuli eta 21 egunetara analisisak egin behar zaizkie
 - Analisisak egin bitartean animalia horiek isolatuta eduki behar dira
 - Analisisak egin arte ezingo dira ustialekutik atera, hiltegi, gizendegi edo IBR0 kalifikazioa duen ustialeku batera izan ezik.
 - Isolamenduaren ondorengo analisisak gE- emaitza eman behar du (gomendioa: emaitza gB- izatea).
 - Txapelketa bakoitzaren antolatzaileak bertan parte hartzeko baldintza gehigarriak eska ditzake:



- Ustialeku parte hartzaileek gutxieneko IBR kalifikazioaren bat edukitzea.
 - Azken 15 egunetan egindako analisietan gB- edo gE- emaitza eduki behar izatea.
 - Besteren bat
- Idi probak eta soka-muturrak:
 - IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar dute (edozein adinetakoak)



- **IBR1, IBR1- edo IBR2:**

- Animalien sarrerak:

- Ezin dira inoiz gE+ emaitza eman duten animaliak sartu
- Kalifikazio baxuagoa duten ustialekutatik badatoz azken 15 egunetan jatorrian egindako analisiek gE- emaitza eman behar dute.
- Garraioan ezin dute kalifikazio okerragoa duten animaliekin batera bidaiatu.
- Jatorrian IBR gaitzaren aurka txertatuta egotea gomendatzen da
- Jatorrian txertatuta ez dauden animalia guztiak sarreran txertatu behar dira
 - **Tratulari baten ustialekutik badator:**
 - Jatorrian azken 15 egunetan egindako analisiak gE- emaitza eman behar du, edo
 - Jatorrian azken 15 egunetan ez bada analisirik egin, sarreran egin beharko zaizkio, animalia 21 egunez isolatuta eduki ondoren eta emaitzak gE- izan beharko du. Frogak horiek egin arte ezin izango da animalia ustialekutik atera, gizendegi, hiltegi edo IBRO kalifikazioa duen ustialekura izan ezik.

- **Gomendioak:**

- Sarrera guztiak IBR3, IBR3-T edo IBR4 kalifikazio duten ustialekueetatik egitea.
- Kasu guztietan jatorriko ustialekuan azken 15 egunetan analisiak egin eta gE- edo gB- emaitza ematea.
- Ustialekura sartzean animalia 21 egunez isolatuta eduki ondoren frogak egin eta gE- edo gB- emaitza ematea.

- Animalien irteerak:

- **Hazkuntza edo ugalketa ustialekura badoaz:**
 - 3 hilabetetik gorako animaliek IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar dute
 - Aurrez gE+ emaitza duten animaliak ezin dira izan
 - Kalifikazio berdina edo baxuagoa duten ustialekutara badoaz ez dago jatorrian IBR analisirik egin beharrik (erosleak analisiak egitea eska dezake).
 - Kalifikazio hobetagoa duten ustialekutara badoaz, azken 15 egunetan egindako analisiek gE- edo gB- emaitza eman behar dute
- **Hiltegi edo Gizendegira badoaz:**
 - Ez dago jatorrian frogarik egin beharrik
 - Txertatu gabe dauden animaliak ere atera daitezke
 - Aurrez gE+ eman duten animaliak ere atera daitezke.
- **Tratulari edo kontzentrazioa gunera batera:**
 - 3 hilabete baino gehiagoko animaliek txertatuta egon behar dute, gazteagoek ez.
 - Ez da beharrezkoa IBR frogarik egitea.



- Joan-etorriko mugimenduak:
 - Larre komunaletara joateko:
 - IBR gaitzaren aurkako txertatuta egon behar dute (edozein adinetakoak)
 - Azoka, erakusketa edo txapelketetara joateko:
 - IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar dute (edozein adinetako animaliak).
 - Txapelketa bakoitzaren antolatzaileak bertan parte hartzeko baldintza gehigarriak eska ditzake:
 - Ustiaileku parte hartzaileek gutxieneko IBR kalifikazioaren bat edukitzea.
 - Azken 15 egunetan egindako analisietan gB- edo gE- emaitza eduki behar izatea.
 - Besteren bat
 - Idi probak eta soka-muturrak:
 - IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar dute (edozein adinetakoak)



MUGIMENDUETARAKO BALDINTZEN LABURPENA

Animalien Sarrerak:

- Kalifikazio berdin edo hobeaotik badatoz ez dago ez jatorrian ez etxean sartzean analisirik egiteko obligaziorik.
- Kalifikazio okerragotik badatoz, azken 15 egunetan jatorrian egindako analisiak gE- emaitza eman behar du.
- Animaliak ezin dira kalifikazio okerragoa duten animaliekin batera garraitu behar.
- Jatorrizko ustialekuak IBR1, IBR1-, IBR2 edo IBR3 kalifikazioa badu, animaliak IBR gaitzaren aurka txertatuta egon beharko dute.
- Norako ustialekuak IBR1, IBR1-, IBR2 edo IBR3 kalifikazioa badu, IBR gaitzaren aurka txertatu gabe sartutako animaliak sarreran txertatu beharko dira.
- Gomendioak:
 - Sarrera guztiak norberaren kalifikazio berdina edo hobeaotia duten ustialekueetatik egitea (egokiena IBR4 kalifikazioa duten ustialekueetatik egitea litzateke).
 - Animalia guztiak jatorrian azken 15 egunetan analisiak eginda sartzea, naiz eta kasu batzuetan ez derrigorrezkoa izan.
 - Animalia guztiei sartu eta 21 egunetara analisiak egitea, naiz eta kasu batzuetan ez derrigorrezkoa izan.

Animalien Irteerak:

- IBR kalifikazio berdina edo okerragoa duten ustialekura badoaz ez dago jatorrian analisirik egiteko obligaziorik. Halere, erosleak analisiak egiteko eska dezake.
- Kalifikazio hobeaotia duten ustialekura badoaz, derrigorrez azken 15 egunetan egindako analisiak gE- izan beharko du.
- IBR1, IBR1-, IBR2 eta IBR3 kalifikazioa duten ustialekutik ateratako animaliek IBR gaitzaren aurka txertatuta egon beharko dute.
- Inoiz gE+ emaitza eman duten animaliak gizendegira edo hiltegira bakarrik joan daitezke.

Donostian, 2021eko abenduaren 10ean

ABERE SUSTAPEN ETA OSASUN ZERBITZUA



MUGIMENDUETARAKO BALDINTZAK

		NORA											
		IBRO	IBR1	IBR1-	IBR2	IBR3	IBR3-T	IBR4	Larrea	Tratularia	Azoka, erakusketa, txapelketa	Gizendegia	Hiltegia
NONDIK	IBRO	0*	1* 4*	1* 4*	1* 4*	1* 4*	1* 2*	1* 2*	Ezin da	Ezin da	Ezin da	0*	0*
	IBR1	3*	3* 4*	1* 3* 4*	1* 3* 4*	1* 3* 4*	1* 2* 3*	1* 2* 3*	3*	0*	3* 8*	0*	0*
	IBR1-	3*	3* 4*	3* 4*	1* 3* 4*	1* 3* 4*	1* 2* 3*	1* 2* 3*	3*	0*	3* 8*	0*	0*
	IBR2	3*	3* 4*	3* 4*	3* 4*	1* 3* 4*	1* 2* 3*	1* 2* 3*	3*	0*	3* 8*	0*	0*
	IBR3	3*	3* 4*	3* 4*	3* 4*	3* 4*	1* 2* 3*	1* 2* 3*	3*	0*	3* 7* 8*	0*	0*
	IBR3-T	0*	0* 4*	0* 4*	0* 4*	0* 4*	0*	1* 2*	0*	0*	0* 7* 8*	0*	0*
	IBR4	0*	0* 4*	0* 4*	0* 4*	0* 4*	0*	0*	0*	0*	0* 7* 8*	0*	0*
	Larrea	Ezin da	0* 5*	0* 5*	0* 5*	0* 2* 5*	0* 2* 5*	0* 2* 5*	0*	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da
	Tratularia	0*	1*	1*	1*	1*	1*	1*	Ezin da	0*	Ezin da	0*	0*
	Gizendegia	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da	Ezin da	6*	0*
	Azoka, erakusketa, txapelketa	Ezin da	0*	0*	0*	2*	2*	2*	Ezin da	0*	Ezin da	Ezin da	Ezin da

0* Jatorrian ez du inolako baldintzarik bete behar

1* Jatorrian, azken 15 egunetan egindako analisiak gE- edo gB- eman behar du

2* Norakoan, animaliak sartu eta 21 egunetara analisiak egin eta gE- edo gB- eman behar du. Analisiak egin arte gizendegi, hiltegi edo IBRO kalifikazioa duen ustialekura besterik ezingo dira mugitu.

3* Animaliak IBR gaitzaren aurka txertatuta egon behar du.

4* Animalia IBR gaitzaren aurka txertatuta ez badago, sarreran txertatu beharko da

5* Jatorriko ustielakura joan behar da

6* Jatorriko gizendegiak "Gizendegi Kalifikatua" izan behar du. Bestela ezin da.

7* Kalifikazio okerragoa duten ustialekutako animaliekin egon badira, jatorriko ustialekura itzuli eta 21 egunetara analisiak egin eta gE- edo gB- eman behar du. Analisiak egin arte gizendegi, hiltegi edo IBRO kalifikazioa duen ustialekura besterik ezingo dira mugitu.

8* Antolatzaileak baldintza gehigarriak eska ditzake: gutxieneko kalifikazioaren bat edo/eta jatorrian egindako analisiak.